

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ATAUNGO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2021eko abenduaren 21ean hasierako onarpena eman zion «ibilgailu astunekin udal herribide eta udal baso-bideetan ibiltzea arautzen duen Ordenantzari, jendeaurreko epea pasa onodoren erreklamaziorik ez bada ezartzen onspen hau behin betikoa izango dela esanez.

Jendaurreko tramitean hainbat alegazio aurkeztu ziren eta udalbatzaren osoko bilkurak 2022ko maiatzaren 26an onartu zuzen ordenantza aldaketarekin.

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, onartutako testua argitaratzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da: Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita; egoki irizitako beste edozein errekurtsio jartzeari utzi gabe.

*Aplikatzekoa den legeria:* Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua.

Ataun, 2022ko ekainaren 16a.—Alkatea. (4088)

*Ibilgailu astunekin asfaltatutako, hormigoizko eta hartxintzarrezko udal herribideetan ibiltzea arautzen duen Ordenantza.*

**1. artikulua.**

Asfaltatutako, hormigoizko eta hartxintzarrezko udal herribide eta baso-bideetan ibilgailu astunak ibiltzeak sortzen dituen kalteei erreparatuta eta Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.31) eta 32) artikuluen eta Udalen Ondasunen Araudiaren 77. artikulua araberak, Ataungo Udalak bide horien erabilera arautzen du bide-zorua hondatzea ekiditeko eta udalerraren eta oro har biztanleen interesak babesteko.

**2. artikulua.**

Udal herribideak erabili ahal izateko, udalaren baimena behar du 10 tonatik gorako pisua duten ibilgailuek. Ez da onartuko 30 tona gainditzen duten ibilgailuen zirkulazioa, ezta herribideak moztea edo oztopatzea ere.

Atoia erabilgarria den bideetan, gehieneko pisu osoa 40 tonaraino igotzeko aukera izango da. Horretarako, berriaz eskatu behar du, eta Udalak baimendu behar du.

Baserriko eguneroko ustiapenarekin zerikusia duten garraioak (pentsu edo bazka-garraioak, simaurrak eta antzekoak) salbuetsita geratuko dira.

## AYUNTAMIENTO DE ATAUN

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Ataun en sesión celebrada el 21 de diciembre de 2021 la «Ordenanza reguladora del uso de los caminos públicos y pistas forestales municipales con vehículos pesados», señalando de que si en el periodo de información pública no se presentaba alegación alguna el acuerdo se consideraría definitivo.

En el periodo de exposición pública se han presentado alegaciones y en sesión plenaria celebrada el día 26 de mayo de 2022 se ha aprobado la misma con modificaciones.

Transcurrido el periodo de información pública sin que se haya presentado ninguna alegación, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto que ha quedado aprobado definitivamente.

Contra el acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio, sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

*Legislación aplicable:* artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

Ataun, a 16 de junio de 2022.—El alcalde. (4088)

*Ordenanza reguladora del paso de vehículos pesados por vías públicas municipales asfaltadas, de hormigón y gravilla.*

**Artículo 1.º**

Atendiendo a los daños ocasionados por la circulación de vehículos pesados por las vías públicas y forestales municipales asfaltadas, de hormigón y grava, y de acuerdo con los artículos 17.1.31) y 32) de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales, y el artículo 77 del Reglamento de Bienes de los Ayuntamientos, el Ayuntamiento de Ataun regula el uso de estas vías para evitar el deterioro del firme y proteger los intereses del municipio y de la población en general.

**Artículo 2.º**

La utilización de las vías públicas municipales requerirá la autorización municipal de los vehículos de peso superior a 10 toneladas. No se permitirá la circulación de vehículos de más de 30 toneladas de peso, ni el corte o entorpecimiento de las vías públicas.

En las vías en las que el remolque sea útil, se permitirá elevar hasta 40 toneladas el peso total máximo. Para ello deberá solicitarse expresamente y ser autorizada por el Ayuntamiento.

Quedan exceptuados los transportes relacionados con la explotación diaria del caserío (piensos o forrajes, estiércoles y similares).

### 3. artikulua.

Bide hauetan, edozein ibilgailuren gehieneko abiadura 30 km/h izango da. Bestalde, zoladura duten mendi-bideetan gomazko gurrpil-estalkiak dituzten ibilgailuak bakarrik onartzen dira eta, zorua edozein izanda ere, bideetatik enborrak arrastaka garraiatzea guztiz debekatuta dago.

### 4. artikulua.

Udalaren bide bat erabili behar duten jabe, garraiolari eta kontratistek udal-baimena eskatu beharko dute (instantzia ofiziala l. eranskinean dago), honako hauek jasota:

- \* Jabe eta garraiolariaren nortasunari buruzko datuak.
  - \* Garraio-ibilgailuen datuak, hala nola egin beharreko bidaia-kopurua, bidaia bakoitzeko zama eta joan-etorriak, kokapen-planoan islatuta.
  - \* Garraiatu beharreko materialen bolumena metro kubikotan.
  - \* Garraioaren hasiera eta bukaera-data.
  - \* Material-bilketa egingo den lekuaren adierazpen grafikoa.
  - \* Baso-produktuak ateratzeko izanez gero, hurrengo dokumentazioa ere gehitu beharko da:
    - Zein menditatik aterako den eta horren kokapena (planoan adierazita).
    - Egin beharreko mozketarako baimena, basogintza arloan eskumena duen agintaritzak emana.
    - Baimena emateko jakinarazpenarekin batera, eskatzaileari Ordenantza honen kopia bat emango zaio, ezagutu eta bete dezan, eta baldintza hau behar bezala egiaztatuta geratu beharko da. Halaber, Aldundian eskumena duen organoarekin datu-trukea ahalbidetzeko sistema berezia ezarriko da, koordinazioa errazte aldera.
- Eskaera aurkezten denetik hamabost egun balioduneko epea izango du Udalak lizentzia emateko, betiere eskatzaileak baldintza guztiak betetzen baditu.

### 5. artikulua.

Udalak egurra uzteko eremu bat prestatuko du. Eremu horrek bi gune nagusi izango ditu, eta egur-ustiatzaileek gune horietako bakoitza alokatzeko aukera izango dute, hilean 200 euro ordainduta.

### 6. artikulua.

Eguraldi txarra denean edo bidea bustita dagoenean ezingo da herri-biderik erabili baso-produktuak ateratzeko.

Ezin izango da udal-bidea erabili lizentziarik izan gabe, nahiz eta eskaera aurkeztuta eduki.

### 7. artikulua.

Aterako den basoaren jabeak erabiliko den bidea egiten edo mantentzen parte hartu ez badu, tasa bat ordaindu beharko du, eta honela kalkulatu da:

– 0,40 €/m<sup>3</sup>.

Tasa kontzeptuan kobratzen diren zenbatekoak bide hori konpontzeko erabiliko dira.

Udal bidea erabiltzeagatik bakoitzari dagokion tasaz gain, eta, bertan sor litezkeen edo auzotarrei eragindako kalteei erantzuteko berme gisa, nahitaezkoa izango da aurretik fidantza bat jartzea. Hura kalkulatzeko, garraiatutako bolumena eta erabilitako bidearen distantzia hartuko dira kontuan, honako arauen arabera:

### Artículo 3.º

En estas vías, la velocidad máxima de cualquier vehículo será de 30 km/h. Por otra parte, en vías de montaña pavimentadas sólo se admiten vehículos con cubierta de ruedas de goma, quedando terminantemente prohibido el arrastre de troncos por las vías cualquiera que sea el suelo.

### Artículo 4.º

Los propietarios, transportistas y contratistas que deban utilizar una vía municipal deberán solicitar la correspondiente licencia municipal, cuya instancia oficial figura en el anexo I, que contendrá:

- \* Datos de identidad del propietario y transportista.
- \* Datos de los vehículos de transporte, como número de viajes a realizar, carga por viaje y desplazamientos, reflejados en el plano de situación.
- \* Volumen de materiales a transportar en metros cúbicos.
- \* Fecha de inicio y finalización del transporte.
- \* Representación gráfica del lugar donde se realizará la recogida de materiales.
- \* Si se trata de la extracción de productos forestales, se deberá adjuntar la siguiente documentación:
  - El monte de donde se va a sacar y su ubicación (indicada en el plano).
  - Autorización de corta a realizar otorgada por la autoridad forestal competente.

– Junto con la notificación de autorización, se entregará al solicitante una copia de esta Ordenanza para su conocimiento y cumplimiento, quedando este requisito debidamente acreditado. Asimismo, se establecerá un sistema especial para posibilitar el intercambio de datos con el órgano competente de la Diputación, al objeto de facilitar la coordinación.

El Ayuntamiento dispondrá de un plazo de quince días hábiles desde la presentación de la solicitud para conceder la licencia, siempre que el solicitante cumpla todos los requisitos.

### Artículo 5.º

El Ayuntamiento habilitará una zona para dejar la madera. Esta zona constará de dos zonas principales en las que los explotadores de madera podrán alquilar cada una de ellas por un importe de 200 euros mensuales.

### Artículo 6.º

En condiciones meteorológicas adversas o con la vía mojada no se podrán utilizar vías públicas para la extracción de productos forestales.

No se podrá utilizar la vía municipal sin licencia aunque se haya presentado la solicitud.

### Artículo 7.º

Si el propietario del bosque resultante no ha participado en la construcción o mantenimiento del camino a utilizar, deberá abonar una tasa que se calculará de la siguiente manera:

– 0,40 €/m<sup>3</sup>.

Las cantidades que se cobren en concepto de tasa se destinarán a la reparación de esa vía.

Además de la tasa que corresponda a cada uno de ellos por la utilización de la vía municipal, y como garantía para responder de los posibles daños causados en la misma o causados a los vecinos, será obligatoria la previa constitución de una fianza. Para su cálculo se tendrán en cuenta el volumen transportado y la distancia del camino utilizado, de acuerdo con las siguientes reglas:

1. Lehenengo eta behin, garraiatutako bolumenari dagokion kopurua kalkulatu da honela:

Bolumena (m<sup>3</sup>):

– 1-950: 5.000 €.

– 951 edo gehiago: 10.000 €.

2. Gero, kopuru horri gehituko zaio kilometroen arabera kalkulatuakoa, zerrenda hau jarraituz:

– 0-1,9: 1.000 €.

– => 2: 2.000 €.

3. Halaber; eskatzaileak, kontratistak edota lehengaien jabeak, Ordenantza honen gorabeheran Udalarekin preskribatu gabeko zorra baleuka, aurreko puntuen arabera irtendako fidantzen zenbatekoari gehituko litzaioke zorraren zenbatekoa, eta zorra kitatuta geratuko litzateke.

Fidantza eskudirutan edo bankuko abal bidez jarri beharko da, zuhaitzak mozten hasi aurretik.

Bermea ezartzeko arduraduna bidea erabiltzeko baimenaren eskatzailea izango da eta, subsidiarioki, garraiatu beharreko materialen jabea, horien hartzailea eta garraiolaria.

#### 8. artikulua.

Fidantza jarri duenak eskatuko du fidantza itzultzeko, eta berrari itzuliko zaio, behin erabili den bidearen egoera aztertuta.

Horretarako, udaleko teknikari batek ikuskatzea aginduko du egindako erabileraren aurretik eta ondoren, eta herri-bidearen egoeraren eta egindako kalteen gaineko txostena gauzatu du.

Txostenean adierazten bada kalteak egon direla, fidantza jarri duenari bidaliko zaio, 15 eguneko epean egokitzat jotzen duena alegatu dezan, eta horren ostean Udalak erabakiko du fidantza itzuliko dion ala egindako kalteak konpontzeko erabiliko duen.

Dena ondo badago, 15 egun baliouduneko epean itzuliko zaio fidantza.

Bide bera hainbat erabiltzailek erabili eta bati baino gehiagori egotz dakizkiekeen kalteak gertatuz gero, erantzukizunak erabiltzaile horien artean banatuko dira, garraiatutako materialen bolumenaren proportzioaren arabera.

#### 9. artikulua.

Zergapeko gisa subjektu pasibo dira Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzeko Zerga Foru Arau Orokorren 33. artikulua bere baitan hartzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak, bidearen aprobetxamendu bereziak edo bidea erabiltzeko baimenak onerako zein txarrerako ukitzen dituenak. Era berean, modu subsidiario eta solidarioan erantzule izango dira baso usiatetaren jabeak, egurraren erosleak eta egurra zein beste zernahi gauza garraiatzen duena. Horri begira, garraioak dirauen denboran garraiolariak nahitaez eraman beharko ditu aldean udal baimenaren jakinarazpenaren jatorrizko agiria nahiz kopia bat eta kanona, hala badagokio, eta bermea ordaindu izanaren ziurtagiriak; dokumentu horiek udal-langileei edo ertzainei erakutsi beharko zaizkie, haiek eskatzen dutenean.

#### 10. artikulua.

Basogintza produktuak ateratzeko kasu zehatzean, baldintza hauek bete beharko dira:

– Garraiatu beharreko materiala bidetik gutxienez 3 metrora pilatu beharko da, kanpoaldeko ertzetik neurtuta. Basogintza produktuen kasuan, distantzia horrek hondarrei ere eragingo die (adarrak eta abar).

– Pilatzeko gutxienezko distantzia hori betetzen ez bada, 1.000 euroko isuna ekarriko du egun bakoitzeko, erretiratzeko epea igarotzen denetik kontatzen hasita.

1. En primer lugar se calculará la cantidad correspondiente al volumen transportado de la siguiente manera:

Volumen (m<sup>3</sup>):

– 1-950: 5.000 €.

– 951 o más: 10.000 €.

2. Posteriormente, a esta cantidad se le añadirá la calculada por kilometraje, conforme a la siguiente lista:

– 0-1,9: 1.000 €.

– => 2: 2.000 €.

3. Asimismo, si el solicitante, contratista o propietario de materias primas tuviese con el Ayuntamiento una deuda no prescrita a tenor de la presente Ordenanza, el importe de la deuda se incrementará al importe de la fianza resultante de los puntos anteriores, quedando cancelada la misma.

La fianza deberá depositarse en metálico o mediante aval bancario antes de proceder a la tala.

El responsable de la constitución de la garantía será el solicitante de la autorización de uso de la vía y subsidiariamente el propietario, destinatario y transportista de los materiales a transportar.

#### Artículo 8.º

El depositante de la fianza exigirá la devolución de la misma, una vez comprobado el estado de la vía utilizada.

A tal efecto, un técnico municipal ordenará la inspección previa y posterior al uso realizado y emitirá un informe sobre el estado de la vía pública y los daños causados.

Si en el informe se constata la existencia de daños, se remitirá al depositante de la fianza para que, en el plazo de 15 días, alegue lo que estime oportuno y, a continuación, el Ayuntamiento decidirá si le devolverá la fianza o la utilizará para reparar los daños causados.

Si todo está en orden, se le devolverá la fianza en el plazo de 15 días hábiles.

En caso de que los daños que pueden utilizar una serie de usuarios y que a más, se distribuirán las responsabilidades entre estos usuarios, según la proporción de la volumen de materiales transportados.

#### Artículo 9.º

Son sujetos pasivos contribuyentes las personas físicas y jurídicas comprendidas en el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria que regula las Haciendas Locales del Territorio Histórico, afectadas por el aprovechamiento especial de la vía o por la autorización de su uso, en sentido positivo o negativo. Asimismo, responderán subsidiaria y solidariamente los propietarios de la explotación forestal, los compradores de la madera y el transportista de la madera o cualquier otra cosa. A tal efecto, durante el tiempo que dure el transporte, el transportista deberá llevar consigo el original o una copia de la notificación de la autorización municipal y los justificantes de pago del canon, es su caso, y garantía, que deberán ser exhibidos al personal municipal o a los agentes de la Ertzaintza cuando éstos lo soliciten.

#### Artículo 10.º

En caso concreto de sacar productos del bosque, se deberán cumplir las siguientes condiciones:

– El material a transportar deberá acopiarse al menos a 3 metros de la vía, medidos desde el borde exterior. En el caso de los productos forestales, esta distancia también afectará a los restos (ramas, etc.).

– El incumplimiento de la distancia mínima de acumulación dará lugar a una multa de 1.000 euros/día, a contar desde el transcurso del plazo de retirada.

— Hondarrak ez kentzeak 50 euroko isuna ekarriko du egunekeo, erretiratzeko epea igarotzen denetik kontatzen hasita. Udal langileek emango dute oniritzia.

— Beste Administrazio Publiko batzuei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, baso-bideak ireki ahal izateko, indarrean dagoen Hirigintzari buruzko legerian aurreikusitako baimenak eskuratu beharko dira.

#### 11. artikulua.

Udal-langileek eta Ertzaintzak zainduko dute Ordenantza hau bete dadin, dagokien udal baimena edo haren kopia udal herri-bideetan ibilgailu astunekin zirkulatzen duen garraiolari orori eskatuta, eta eduki ezean, garraiatzen ari den materiala ibilgetzea agindu ahal izango dute, lizentzia eskaera kudeatzen den artean behintzat.

Halaber, udal-langileek ikusten badute lizentziarik ez duela, edo susmatzen badute zerbait falta zaiola, inspekzio-akta egingo dute han bertan, eta berehala jakinaraziko diete interesdunei. Horrenbestez, aktak zigor jardunbideari hasiera emango dio, hala badagokio.

Ataungo Udaleko langileak izango dira Ataungo Udalaren agente-inspektore baimenduak eta dagokien dokumentazioa aldean eramango dute.

Herri-bideetan garraio astunekin ibiliz gero aurrez udal-baimena lortu gabe edota baimenaren baldintzak urratuz, 1.500 euroko isuna izango du egindako bidaia bakoitzeko, aurreko artikuluan ezarritako neurriak hartzeari kalterik egin gabe.

Zigorra ezartzeak ez du salbuetsiko dagokion fidantza ordaintzetik edo herri-bidearen erabilera-tasaren ordaintzetik.

#### 12. artikulua.

Udalak ahalmena du erregelamendu hau interpretatzerakoan edo arautegirik ez dagoenean sor litekeen edozein arazo ebazteko edo konpontzeko.

#### Xedapen indargabetzailea.

Indarrak gabe geratzen da 1999ko uztailaren 27an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen Ordenantza, herri erabilera baso-pista eta bideen erabilera berezia arautzen zuena.

#### Azken xedapena.

Ordenantza hau indarrean sartuko da bere testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta Erregimen Lokalari buruzko oinarrien Lege Erregulatzailearen 70.2 artikuluko tramiteak betetzen direnean.

— La no retirada de los restos dará lugar a una multa de 50 euros diarios a contar desde el transcurso del plazo de retirada. El personal municipal dará su visto bueno.

— Sin perjuicio de las competencias que correspondan a otras Administraciones Públicas, la apertura de caminos forestales requerirá la obtención de las autorizaciones previstas en la legislación urbanística vigente.

#### Artículo 11.º

El personal municipal y la Ertzaintza velarán por el cumplimiento de esta Ordenanza, solicitando la correspondiente licencia municipal o copia de la misma a todo transportista que circule con vehículos pesados por las vías públicas municipales, pudiendo ordenar, en caso de no tenerla, la inmovilización del material transportado, al menos durante la gestión de la solicitud de licencia.

Asimismo, en el caso de que el personal municipal observe que no dispone de licencia o se sospecha que le falta algo, levantará acta de inspección in situ, comunicándosele inmediatamente a los interesados. En consecuencia, el acta dará inicio, en su caso, al procedimiento sancionador.

El personal del Ayuntamiento de Ataun será el agente inspector autorizado del Ayuntamiento de Ataun y portará la documentación correspondiente.

La circulación por las vías públicas con transporte pesado sin haber obtenido previamente la licencia municipal o incumpliendo las condiciones de la misma, será sancionada con multa de 1.500 euros por cada viaje realizado, sin perjuicio de la adopción de las medidas previstas en el artículo anterior.

La imposición de la sanción no eximirá del pago de la fianza correspondiente o de la tasa de utilización de la vía pública.

#### Artículo 12.º

El Ayuntamiento queda facultado para resolver cuantas cuestiones pudieran plantearse en la interpretación del presente Reglamento o en su defecto.

#### Disposición derogatoria.

Queda derogada la Ordenanza reguladora del uso especial de pistas forestales y caminos de uso público publicada por el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 27 de julio de 1999.

#### Disposición final.

La presente Ordenanza entrará en vigor cuando se publique su texto íntegro en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y se cumplan los trámites del artículo 70.2 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local.